

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Alkatetzaren 2022/3279 Dekretuaren laburpena, 2022ko urriaren 11koa. Horren bidez, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo zaugarriak» programaren barruan enplegu-formakuntza proiektuak gauzatuko dituzten erakundeak hautatzeko Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. BDNS (Identif.): 653603.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/653603>):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da, eta haren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>):

Lehena. – Erakunde onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta izena emanda badaude Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea), LANBIDEn ebazpenak «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo zaugarriak» programarako ezartzen duenaren arabera. Erakundeek gai izan behar dute gauzatzeko aurkeztuko diren proiektuko edo proiektuetako ekintza guztiak: kontratazioa, formakuntza, orientazioa eta akonpainamendu indibiduala.

Bigarrena. – Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo batzuk hautatzeko prozedura (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea). Erakunde horiek gauzatuko dituzte Basauriko Udalak aurkeztu eta LANBIDEk «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo zaugarriak» deialdiaren baitan onartutako programak.

Hirugarrena. – Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak dekretu honetan bertan onartzen dira, eta batera argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Laugarrena. – Zenbatekoa

Deialdi honen guztizko zenbatekoa 1.283.991,12 euro da. Finantzaketaren %29,35 Basauriko Udalarri dagokio, eta gainerako %70,65a Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatutako dirulaguntzari. Azken zenbateko horretatik, 354.000 euro Europar Batasunaren Next GenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kargura izango dira.

Bosgarrena. – Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea zortzi (8) egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita,

Seigarrena. – Justifikazioak aurkezteko epea

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak hilabeteko epea izango du, kontratazioak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, diruz lagundutako jarduerak eta eginiko gastuak



bete izanaren justifikazioa aurkezteko, moduluen erregimenaren bidez, kontuan izanik uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. eta 76etik 79era bitarteko artikuluetan jasotakoa.

Basaurin, 2022ko urriaren 11n. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren